BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4006

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 18koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irale programan parte hartzen duten euskaltegiei 2011-2012 ikasturtearen bigarren txandako ikasleen matrikula-gastuak ordaintzeko.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko klase-emankizunez diharduenean, honela dio bere 23. ataleko 4. pasartean: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntza sailburuordearen 2011ko maiatzaren 17ko Aginduak (EHAA, 2011ko ekainaren 6koa) 2011ko udarako eta 2011-2012 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu.

Agindu horren ondorioz ebazpen bi jakinarazi ditu, biak 2011ko uztailaren 12koak (EHAA, 2011ko abuztuaren 2koa), Hezkuntza sailburuordeak: bata, Iraleren 2011ko udako klase-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena eta bestea 2011-2012 ikasturtean Irale programaren Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena.

Ebazpen horiek, beren xedapen gehigarrietan, material-prestakuntza eta zenbait kasutako joan-etorri gastuak ere zehatz arauturik dituzte.

Horren guztiaren garapenez, 2011-2012 ikasturtearen bigarren eta hirugarren trimestretako hainbat klase-emankizun burutu dute kasuan kasuko ikasketa-elkarteek. Emandako klase-emankizunak ordaintzea dagokio, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten diren euskaltegi eta ikasketa-elkarteei bertan adierazitako diru-kopuruak ordaintzea, 2011-2012 ikasturtearen bigarren txandako matrikula-gastuak estaltzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen den egunaren hurrengotik hasi eta handik hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 18a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

ERANSKINA

ARABA/ÁLAVA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Euskaraz Koop. E.	683,10
Udaberria elkartea	2.131,20
Hegoalde euskaltegia	2.566,65
Gasteiz Adur (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	5.967,00
Pinto Aratz-Ardatz (Kultur Elkartea IKA) Gastei:	1.771,20
Zaldiaran-Ardatz (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	4.254,60

GIPUZKOA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Eibarko UE	222,50
Legazpi 6 euskaltegia S.L.	1.863,00
Gernika XXI, S.L.	2.430,00
Ilazki euskaltegia S.C.L.	1.353,38
Urrats euskaltegia s.coop.ltda.	1.712,76
Euskaraz Koop. E.	22.193,94
EBETE-Hizkuntza Zerbitzuak	4.622,95
Emun Koop. E.	17.718,15
Maizpide Euskaltegia-Lazkao	2.369,30
Urtxintxa Eskola-Gipuzkoa	1.052,32
Mintzola Fundazioa	3.656,50
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	58.615,54

BIZKAIA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Aula de cultura de Getxo (Getxoko UE)	360,80
Enkarterrietako UE	434,70
Trapagarango UE	241,92
Sestaoko UE	91,84
Barakaldoko Euskara Udal Erakundea	374,90
Basauriko UE	457,92
Durangoko UE	485,90
Orixe Euskaltegia S.A.L.-(Mikelats-Bilbo)	1.212,77
Gabriel Aresti-Txinta Koop.	15.217,20
Euskaraz Koop. E.	15.291,30
Aurten Bai-Zornotzako Barnetegia	8.593,90
Juan Mateo Zabala euskaltegia	4.260,96
Bilbo Zaharra euskaltegia	9.268,52
Ulibarri euskaltegia	10.789,49
Gotzon Garitaonaindia euskaltegia	1.205,10
Urtxintxa Eskola-Bizkaia	569,30
Jose Antonio Agirre euskaltegia	999,00
Bilboko Labayru-Inst. Diocesano E.J. Labayru E	1.028,40
Euskal Irakaslegoa - Deustu unibert.	2.187,00
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	220,40